

**JARDUERA
MEMORIA**

**Bizkaiko Genero
Indarkeriaren Behatokia**

2011

Informazioa kudeatzeko sistema integrala
Online dokumentu-kudeatzailea
Arreta-baliabideen eta programa espezifikoen katalogoa
Udalerrietako Informazio Orria
Gomendioak
Zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan
OVGB/BGIB informazio-buletina
Baliabideen Atlas
Kanpo-harremanak
Webgune
Baliabideen mapa

AURKIBIDEA

Orrialdea

1. Aurkezpena	4
2. Zer da Behatokia?	6
3. Kideak.....	8
4. Araudiaren garapena.....	14
5. 2009-2012ko Lan Planaren laburpena 2011ko aplikazioari dagokionez	15
6. BGIBren jarduerak 2011n	19
a. Osoko Bilerak.....	19
I. 2011ko martxoaren 31ko bilera	
b. Adierazleen Lan Taldea	20
I. 2011ko martxoaren 25eko bilera	
II. 2011ko apirilaren 11ko bilera	
III. 2011ko ekainaren 10eko bilera	
IV. 2011ko urriaren 5eko bilera	
V. 2011ko urriaren 18ko bilera	
c. Kanpo-harremanak.....	25
d. Webgunea.....	26
e. Udal Kontaktu Sarea	30
f. Informazioa kudeatzeko sistema integrala	32
g. Baliabideen mapa	34
h. Baliabideen Atlasa	36
i. Zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan	38
j. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa.....	41
k. Udalerrietako Informazio Orria	43
l. <i>Online</i> dokumentu-kudeatzailea	46
m. OVGB/BGIB informazio-buletina	48
n. Indarkeriaren gaineko erakundeen	

jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak:

Jarraipena 51

1. Aurkezpena



Dokumentu honen asmo behinena da

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak (BGIB), erakundearen eskumeneko helburuak betetzeko asmoarekin, 2011. urtean eginiko jarduerak jasotzea. Hauxe da BGIBren xede nagusia: Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria-egoeren errealitatea eta bilakaera zein den jakitea, gertatzen diren aldaketak erregistratu ahal izateko, eta, horrez gain, gomendioak eta proposamenak egitea Bizkaian genero-indarkeriaren arloarekin zerikusia duten zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetzeko.

Hori dela eta, lanean jarraitzen dugu jakiteko lurraldean eskueran dauden arreta-baliabideen sarea erabiltzen duten genero-indarkeriaren biktimak zenbat diren, emakume horiek zer profil duten eta zer eskakizun mota egiten duten. Urtean eta sei hilean behin datuak biltzeko prozesua baliatzen dugu horretarako.

Behatokiaren jardueraren berri dutenek ondo dakitenez, bi prozesu horiek amaitzean, hurrenez hurren bi txosten mota lantzen ditugu. Alde batetik, urteko bi txosten hauek: “Bizkaiko Lurralde Historikoan artatu diren genero-indarkeria egoeren kopuruak: Gizarte babesa, Polizia eta Epaitegien esparrua” eta “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Foru Baliabideak, udalerrietakoak eta mankomunitateetakoak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Harrera, Aholkularitza Juridikoa, Laguntza Psikologikoa, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatua eta Familien Elkarguneak”. Dokumentu horiek Behatokiaren webgunean daude, kontsultatzeko interesa duten guztientzat eskuragarri. Horrez gain, Baliabideen mapa, Baliabideen Atlasa eta Dokumentu-kudeatzailea tresnei buruzko informazioa ere eskura dago web-orrialdean, eta BGIBk jorratzen dituen gaiei buruzko azken berriak ere irakur daitezke *OVGB/BGIB Buletinean*.

Erakundeak, bestalde, aurreko ekitaldian abiatutako lan-ildo garrantzitsuari jarraitu dio, eta, hala, seihileko txostenak landu ditu: “Udalerrietako informazio-orria” deritzonak, hain zuzen. Lurraldeko udalentsako dokumentu espezifikoak dira aipatutakoak eta oso lagungarriak dira Behatokiaren interesa taxutzeko; hau da, arretarako beren baliabideak dituzten Bizkaiko entitate, udal eta mankomunitate horietan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan datuen sistematizazioa hobetzeko.

“Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeek jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” dokumentuaren jarraipena eta balantzea egiteko prozesuari ere ekin zaio 2011. urtean, Behatokian partaide diren erakundeek gomendio horiek ezartzeko hartu zuten konpromisoa zenbateraino betetzen den jakiteko.

Berrir ere eskerrak eman nahi dizkiegu informatzaile guztiei: Bizkaiko udalerrietan eta mankomunitateetan berdintasun eta gizarte-zerbitzu sailetan lan egin eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko zer zerbitzu dauden azaltzen dutenei eta emandako laguntza kopuru eta estatistiken gainean informazioa emateaz arduratzen diren guztiei. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu, orobat, Administrazioaren sailetan gomendioak zenbateraino bete diren jakiteko informazioa biltzen eta BGIBrekin bitartekari-lanak egiten aritu diren arduradun eta kargudun guztiei.

*Pilar Ardanza Uribarren
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiako presidentea
Gizartekintzako foru diputatua*

2. Zer da Behatokia?

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia organo aholku-emailea da, martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuak sortua. Dekretu horretan jasotzen den osaketa, gerora, azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuak eta, berriki, otsailaren 2ko 5/2010 Foru Dekretuak aldatu du.

Behatokiaren xedea da informazio-sistema sendo bat eratzea, horren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumearen aurkako indarkeria-egoeren eta arlo horretan abiarazi diren erakunde-politiken eraginaren jarraipena eta zainketa egin ahal izateko (politika horien garapenari, ezarketari eta eragindako biztanleriarengan duen eraginari dagokionez), era horretara eskuragarri dauden baliabideak behar errealetara egokitzeke.

Behatokiak bi helburu nagusi hauek ditu:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria-egoeren errealitatea eta bilakaera zein den jakitea, izan diren aldaketak aztertu ahal izateko.
2. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero-indarkeriaren arloarekin zerikusia duten zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetzeko.

Helburu horiekin bat etorriz, Behatokiari esleitutako eginkizunak honako hauek dira:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako genero-indarkeriako egoerei buruzko datuak jasotzeko aplikazio informatikoa diseinatzea, martxan jartzea eta mantentzea.
2. Genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko esparruetan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta haren analisisia egiteko organo iraunkorra izatea.
3. Emakumearen aurkako indarkeriaren arloan zerbitzuek erabiltzen dituzten informazio-sistemak eta adierazleak hobetzera bideratutako gomendio eta proposamenak egitea.
4. Antzeko beste erakunde batzuekin harremanak izatea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazio batzuetan abiarazitako eta planteatutako esperientzia eta erreformen berri jakitea.
5. Genero-indarkeriako egoeren hedadurari eta bilakaerari buruzko diagnosi-txosten teknikoak eta azterketak egin daitezen proposatzea.
6. Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasuna aztertzea, neurri horien ondorio eta eraginak ikertuz eta jardunbide egokien adibideak aztertuz.

7. Bizkaian, genero-indarkeriaren eremuan eragina duten baliabideen eskaintza hobetzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea, eta horiek dagozkien erakundeetara helaraztea.
8. Genero-indarkeriaren eremuan ikertzen duten taldeen azterketa- eta analisi-lanak errazteko truke- eta komunikazio-foro bat eratzea.
9. Behatokiak urtean zehar garatzen dituen jardueri buruzko urteko txostena igortzea, eta Bizkaiko Batzar Nagusietan txosten horretan bildutako datuen berri ematea.
10. Bere antolaketa- eta funtzionamendu-araudia egitea.

3. Kideak

Behatokiak administrazioaren hiru mailetako ordezkari instituzionalak ditu (hau da, EAEko ordezkariak, Bizkaiko Foru Aldundikoak eta tokikoak), baita emakumeen elkarteetako ordezkariak ere. Horien guztien helburua eta ahalegina da emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari era koordinatuan erantzutea, beren esku-hartze esparruetan jardunez.

2011ko ekitaldian hainbat aldaketa izan dira eta horiek eragina izan dute Behatokiaren osoko bilkuran, bai partaide diren erakundeen egitura organikoa aldatu delako, bai ordezkari berriak izendatu dituztelako. Hori horrela izanik, 2011ko ekitaldiaren amaieran, hauek dira Behatokiaren osoko bilera eratzen duten kideak:

LEHENDAKARITZA

Gizartekintzako foru diputatua:

Maria Pilar Ardanza Uribarren andrea

LEHENDAKARIODETZA

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia (Gizartekintza Saila, BFA):

Sergio Murillo Corzo jauna, Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia

Ordezkoa: *Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna*, Pertsonen autonomia sustatzeko eta mendekotasuna artatzeko zuzendari nagusia

IDAZKARITZA

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia (Gizartekintza Saila, BFA):

Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Saileko burua

Ordezkoa: *Amaia Antxustegi Ziarda andrea*, Emakumea eta Familia Zerbitzuaren Administrazio Nagusiko teknikaria

MAHAIKIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundia

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia

María Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakumea eta Familia Zerbitzuaren burua
Ordezkoa: Elena Iturrizaga Larrabeiti andrea, Plangintza eta Ikerlanetako Zerbitzuaren burua

Gizartekintza Sailari dagokio, foru diputatuaren zuzendaritzapean, indarreko antolamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari onesten dizkion eskumenen jarduna, gizarte-zerbitzuen arloan, bai eskumenen eratzikipen juridiko positibo zuzenaren bitartez, bai zeharka beste administrazio publiko batzuei lehenago atxikiak zitzaizkien eginkizun eta zerbitzuen intsuldaketei buruzko xedapenetatik eratorritako eskuduntzaren bitartez.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia

Xabier Legarreta Gabilondo jauna, Berdintasunerako zuzendari nagusia
Ordezkoa: Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero-politiken idazkari teknikoa

Gizartekintza Sailari dagokio, foru diputatuaren zuzendaritzapean, indarreko antolamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari onesten dizkion eskumenen jarduna, gizarte-zerbitzuen arloan, bai eskumenen eratzikipen juridiko positibo zuzenaren bitartez, bai zeharka beste administrazio publiko batzuei lehenago atxikiak zitzaizkien eginkizun eta zerbitzuen intsuldaketei buruzko xedapenetatik eratorritako eskuduntzaren bitartez.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saila

Anselmo Ardanza Sustatxa jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea

Ordezkoa: Miren Begoña López-Uribarri Goikolea andrea, Langileen Zerbitzu Juridikoko burua

Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailak du eskumena udal-harremanen arloan eta herri-administrazioari dagokionean Bizkaiko Lurralde Historikoan Foru Administrazioari aitortutako eskumenak betetzeko. Herri-administrazioari dagokionez, sail honi zeregin hauek dagozkio: foru-langile publikoen erregimen juridikoa; foru-sail guztien interesekoak diren zerbitzuak eta jarduerak; barne-komunikazioa; erakunde-koordinazioa; eta Foru Aldundiaren zeinahi gai, baldin eta berariaz beste sailen bati esleitu ez bazaio.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapena Saila:

Francisco Aguiriano Miranda jauna, Informazio Egituren Ataleko burua

Ordezkoa: Juan José Duque Murua jauna, Informazio Egituren Ataleko teknikaria

Ekonomi Sustapen Sailari, beste jarduera-eremuez gain, Bizkaian enplegua sustatzea eta gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboen enplegua sustatzea dagozkio: Bizkaiko langabetuak gizarteratzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko prestakuntza, baita pertsona horien gaitasunak eta potentzialtasunak hobetzea ere; kolektibo behartsuetako pertsonen prestakuntza; azpiegitura industrialak sortzea, enplegua sortzen lagun dezaten, eta azpiegitura estrategikoak sortzea Bizkaiko turismo- eta arrantza-sektoreetan; eta prestakuntza- eta enplegu-gaietan jarduten diren beste administrazio eta gizarte-eragile batzuekin hartu-emanak izatea eta koordinatzea.

Eusko Jaurlaritzza

↑ Emakunde-Emakumearen Euskal Institutua:

María Silvestre Cabrera andrea, zuzendaria

Ordezkoa: Reina Ruiz Bobes andrea, Emakundeko aholkularia

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Idazkaritzari atxikia. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arlo guztietan lortzearen alde lan egiteko sortu zen. Gure erkidegoan sexuaren arabera diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak aztertzeo tresna da, eta hori oinarri hartuta, neurri zuzentzaileak bultzatzea du helburua.

↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:

Mariola Serrano Argüeso andrea, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria

Uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren bidez aldatutako maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Herrizaingo Sailari dagokio, beste jarduera-eremu batzuez gain, "Genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzea". Halaber, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak 10. artikuluan jasotzen du Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zuzendu eta koordinatu behar duela Eusko Jaurlaritzaren politika genero-indarkeriari dagokionez.

↑ Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila:

Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuak xedatzen du Justiziako Sailburuordetzaren egitekoak hauek direla, besteak beste: Botere Judizialarekiko eta Justizia Administrazioan jarduten duten beste erakunde eta organoekiko harremanen inguruan Sailak dituen eskumenak betetzea; administrazio horrek ongi jarduteko behar dituen baliabideak jartzea; giza eskubideak babestea eta defenditzea; Justizia Agintaritzak xedatutako neurriak betearaztea; eta espetxeei buruzko eskumenak gauzatzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak

↑ Bilboko Udala*:

Nekane Alonso Santamaría andrea, zinegotzia

↑ Ermuako Udala*:

Natividad Alonso Estalayo andrea, zinegotzia

↑ Ugao-Miraballeseko Udala*:

Izaskun Landaia Larizgoitia andrea, alkatea

* Izendapen horiek indarrean izan dira 2011ko maiatzaren 22ra arte, udal hauteskundeak egin ziren egunera arte hain zuzen, eta 2011ko abenduaren 31n artean izendatzeko zeuden kargua hartuko duten kide berriak.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duen 53/2003 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera, EUEL-Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateetako hiru ordezkari, Behatokiako osoko bilkuran parte har dezaten. EUEL-Euskal Udalerrien Elkartea etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundearen arteko Akordioa sinatu zuen erakundeetako bat da, eta horretaz gain, akordio horren Jarraipen Batzordeko kide ere bada. EUEL-Euskal Udalerrien Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerri guztiek osatzen dute. Hala, beste erakunde guztiekin harremanetan jartzeko ordezkari egoki eta eraginkorra da, politika publikoak koordinatzeko eta haiei buruzko adostasunetara iristeko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Arloaren baitan sortutako "Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foro"-aren ordezkari gisa:

SIM ROMI - EMAKUME IJITOEN ELKARTEA.
Rosa Jiménez Jiménez andrea

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa foro aholku-emailea da, eta kontuan hartzen dira bertan Bizkaiko Lurralde Historikoko jarduten diren emakumeen kolektiboek egindako planteamenduak. Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako III. Foru Planaren (2009-2011) jarraipenerako mekanismo dinamikoak ezartzen ditu.

↑ Genero Indarkeriaren arlotik:

ARGITAN -Emakumearen Zentro Aholku-emailea
Karmele Ozaita Andrés andrea, lehendakaria
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, diruzaina

"ARGITAN" Emakumearen Zentro Aholku-emailea 1996ko martxoan jarri zen martxan. Desberdintasuneko, diskriminazioko eta sexu-indarkeriako egoerak jasaten dituzten emakumeen beharrei erantzuten saiatzen da ARGITAN, kontuan hartuta, betiere, egoera horiek hainbat modutara ager daitezkeela. Batez ere lege- eta lan-aholkularitza, sexu- eta psikologia-laguntza eta gizarte-arloetako aholkularitza ematen ditu. Horietaz gain, hainbat gairi buruzko jarduerak ere egiten dituzte, betiere genero-ikuspegia oinarri hartuz (lantegiak, ikastaroak, hizketaldiak, eztabaidak), eta salaketa-, aldarrikapen- eta kontzientziazio-lana ere egiten dute zentroko langileek.

↑ Genero Indarkeriaren arlotik:

AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua.


Marta Dolado Galíndez andrea, Aholkulari juridikoa

Ordezkoa: Ana Fernández de Garayalde Ulacia andrea, soziologoa

Auzolan Laguntza Psiko-sozialerako Modulua irabazi-asmorik gabeko elkartea da, 1982. urteaz geroztik lanean diharduena osasun-maila hobetzen, osasuna alderdi bio-psiko-sozialetik landuz.

Laguntza psikologikoa eta lege-aholkularitza eskaintzen ditu, baita helduentzako, haurrentzako eta gazteentzako osasun mentala, ugaltze-osasuna eta alkoholismoari eta toxikomaniei aurre egitea lortzeko neurriak ere.

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN ORGANIGRAMA 2011



4. Araudiaren garapena

Behatokiaren jarduera arauzko marko batek zehazten du eta marko horrek honako berariazko xedapen hauek biltzen ditu, erakundearen sorkuntzari, osaketari eta funtzionamenduari dagokienez:

 53/2003 FORU DEKRETUA, martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duena. (BAOren 63. zk., 2003ko apirilaren 1ekoa.)

 188/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena; beraren bidez Bizkaian Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Behatokia sortu duen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldarazi da. (BAOren 226. zk., 2004ko azaroaren 23koa.)

 5.016/2005 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu duena. (BAOren 82. zk., 2005eko maiatzaren 3koa.)

 5/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu duen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldarazi duena. (BAOren 29. zk., 2010eko otsailaren 12koa.)

5. 2009-2012ko Lan Planaren laburpena 2011ko aplikazioari dagokionez

5.1. Administrazio- eta funtzionamendu-zereginak

2011. urtean, Behatokiaren osoko bilkurak bilera egin zuen martxoaren 31n. Bilkura hartan, besteak beste, honako gai hauek jorratu ziren: seihileko datuak biltzeko prozesuaren bilakaera eta prozesu horren azken emaitza, Udalerrietako informazio-orria; BGIBren 2010eko jardueren memoria aurkeztea eta onartzea; erkidego mailan Genero Indarkeriaren Behatoki bat eratzeak izan dezakeen eraginaren inguruan zabaldu den gogoeta-prozesua; eta, hain zuzen, arrazoi horrexegatik BGIBren Lan Planean aurreikusitako neurri batzuk atzeratu izana.

Adierazleen Lan Taldeak, berriz, bost bileratan hartu zuen parte: martxoaren 25ean, apirilaren 11n, ekainaren 10ean, urriaren 5ean eta urriaren 18an eginiko bileretan, hain zuzen. Bilera horietan honako gai hauek aztertu eta bozkatu zituzten: Adierazleen Lan Taldeak 2011. urteari begira aurreikusitako jardueraren egitarauari buruzkoak; datuak biltzeko seihileko prozesuaren bilakaera (2010eko lehen seihilekoa) eta prozesu horretan parte hartu duten erakundeek hortik sortu diren txostenen gainean eginiko balorazioa; urteko datu-bilketaren koordinazioa (2010eko datuak) eta dagozkion txostenak lantzea; 2011ko lehen seihilekoko datuak biltzeko prozesua abiatzea eta landu beharreko txostenak hobetzea; eta BGIBk 2004-2008 epearen amaieran emandako gomendioen jarraipen-prozesua eta balantzea.

Saio horietan, halaber, Adierazleen Lan Taldean Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko ordezkaria bakarra izatetik bi izatea onartu zen eta halaxe bildu zen taldera Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikari bat; “Etxean indarkeriaren biktimea diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak, 2011” eta “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2011” dokumentuak onartu ziren; eta Emakumea eta Familia Zerbitzuak eta Behatokiko Idazkaritza Teknikoak erredakzio-talde bat eratu zuten gomendioen jarraipenari buruzko edukiak lantzeko.

5.2. Hedapenaren eta harremanen gaineko zereginak: BGIBren harremanak eta jarduera eta produktuen hedapena kudeatzea

Behatokiari dagokio informazioa eta dokumentazioa eskatzen duten pertsonei erantzuna ematea. Herri administrazioako maila batzuetan eta besteetan diharduten pertsonek egiten dituzte eskabide gehien.

Behatokia herritarrengana zabaltzeko eta erakundea ikusarazteko zereginei dagokienez, Behatokiak webgunea baliatzen du jarduerak eta produktuak jendaurrean zabaltzeko, bai Behatokiak berak sortuak eta bai besterenak, baina emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokarekin estu lotuak betiere. Aldi berean, entitateak berak, erakundeek eta gizartearen zein herritarren eraldaketan diharduten guztiek beren artean hartu-emanak izateko gunea da web-orrialdea. Horrenbestez, erakundearen egitekoa izanik, 2011. urtean etengabe eguneratu dira webguneko edukiak eta, horretarako, Behatokiaren jarduerari buruzko informazio gehiago paratu da, erakundeak sortutako zenbait dokumentu gehitu dira eta emakumeen aurkako indarkeriari buruz egin diren txosten eta ikerlanak argitaratu dira.

Alde horretatik, beharrezkoa da *OVGB/BGIB Buletina* agerkariaren egitekoa azpimarratzea. Aldizkari itxurako baliabide elektroniko hori hiru hilean behin argitaratzen du Behatokiak; hala, 2011n beste lau zenbaki kaleratu ditu: 20. zk. martxoan, 21. zk. ekainean, 22. zk. irailean eta 23. zk. abenduan.

5.3. Urteko eta seihileko txostenak: BGIBren produktuak eta txostenak egitea

BGIBren 2009-2012 Lan Planean jasotako laugarren helburua da Behatokiaren txostenak egiterakoan *datuen analisia eta joeren identifikazioa hobetzea, BGIBk ekoizten dituen txostenetako analisi-lerro batean sakonduz*; eta helburu hori betetze aldera, 2008. urteaz geroztik “Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua” txostena lantzen du Behatokiak. Txostenaren lehen zatian, indarkeriarekin loturik, gizarte-, polizia- eta epai-eremuetan artatutako emakumeen bolumenari buruzko datuen azterketa deskribatzailea egiten da; eta bigarren zatian, datuak berak daude, jardun-eremuaren arabera multzokatuta eta kontsultarako hainbat formatutan.

Halaber, urteroko egitekoa izanik, “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatuak eta Familia-elkarguneak” dokumentuaren bertsio eguneratua argitaratu du Behatokiak 2011n. Botere publikoek genero-indarkeriaren biktima

diren emakumeei laguntzeko dituzten prestazioei buruzko informazioa zehazten da txosten horretan.

Seihileko txostenei dagokienez, BGIBk “Udalerrietako informazio-orriak” osatzen ditu 2010. urteaz geroztik. Dokumentu zehatz horien bidez emakumeen aurkako indarkeriaren arloan beren baliabideak dituzten Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan jasotako daturik esanguratsuenen berri eman die Behatokiak udalerri eta mankomunitate horiei 2011n. Hain zuzen, urteko lehen sei hilabeteetan indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntzeko zerbitzu publikoetan jasotako datuak zehazten dira informazio-orri horietan. Guztira 29 txosten egin ditu Behatokiak.

Eta aurreko urteetako ildoari jarraituz, baliabide hauek eguneratzeko lana egin ere egin du: “Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa”, “Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlas” eta “Online dokumentu-kudeatzailea”. Lurraldean arlo batzuetan eta besteetan (gizarte-zerbitzuak, polizia, epaitegiak, osasun arloa eta elkarteak) emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzen duten zerbitzuetatik sortutako informazioa biltzen da hiru tresna horietan: zerbitzuen sarearen funtzionamenduak zer ezaugarri dituen, arlo horretan zer dokumentu dauden; hau da, berdintasuneko zer plan eta programa, indarkeriaren aurkako zer plan eta programa, eta udalerrietan eta mankomunitateetan ezartzeko zer koordinazio-protokolo dauden.

5.4. Datuak biltzea: urtekoa eta seihilekoa.

Behatokiak urteko datuak biltzeko prozesuari ekin dio berriro 2011ko lehen hilabeteetan, jakiteko zerbitzu publikoek gizarte-, polizia- eta epai-eremuetan zenbat emakume artatu zituzten 2010ean indarkeria-arazoekin loturik (hau da, datuak 2010ekoak dira), eta jakiteko, halaber, 2011n eskakizun eta arazo horiei erantzuteko prestatutako baliabideak zenbateraino dauden eskuragarri eta zer ezaugarri dituzten.

Urteko datu horiek jasotzeko erakundeek ezinbesteko esku-hartzea dute eta, zehazki, honako hauek laguntzen dute zeregin horretan: Lurraldeko udalerri eta mankomunitateek, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak (Analisi Arloa eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza) eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoak. Eta bilketa hori osatzeko, hainbat iturri dokumentaletara jo da, justizia arlotik datozen zenbait datu jasotzeko.

Era berean, urteko lehen seihilekoari dagozkion datuak ere bildu dira 2011n, eta aurreko urtean abiatutako esperientzia pilotua oinarritzat harturik, ekitaldi honetarako helburuen

artean hobetu beharreko hainbat alderdi jaso dira planteamenduan: udalerrietatik datozen datuak biltzeko *prozesuan* bertan hobetu beharrekoak, erakunde horien *partaidetza* maila emendatzeko harturiko neurriak, seihileko datuak beste iturri batzuetara zabalduta bilketa horren *irismena* areagotzeko harturikoak, eta informazio berriarekin landutako txostenen *edukia* aberasteko jasotakoak.

Irailean ekin zitzaion prozesu horri eta informazioa eskatu zaien erakunde guztiek hartu dute parte: Lurraldean beren baliabideak dituzten udalerri eta mankomunitateek, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak (Analisi Arloa). Beste hainbatetan egin izan den moduan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistika baliatu da Lurraldeko udalerri eta mankomunitateetako erreferentziazko barruti judizialeko datuak jakiteko.

Udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideei buruzko informazioa jasotzeko, Behatokiak tresna zehatz bat erabiltzen du prozesuaren maila horretan: *galdeketa digital pertsonalizatua*. Galdetegi horrek bi bertsio ditu, laburragoa bat eta luzeagoa bestea, seihileko datuak jasotzeko lehena eta urtekoak jasotzeko bigarrena. Aldiro-aldiri, datuak biltzen diren bakoitzean, hobekuntza teknikoak eta kontzeptuzkoak egiten dira galdeketa horretan, eraginkorragoa izan dadin.

6. BGIBren jarduerak

a. Osoko Bilerak

Behatokiaren antolaketa- eta funtzionamendu-araudiaren arabera, Behatokiaren ohiko osoko bilkura urtean bitan egingo da; eta ez-ohikoa lehendakaritzak deitzen duen guztietan, lehendakaritzak berak eskatuta edo gutxienez kideen herenak eskatuta.

2011n, osoko bilkurako ordezkariak bilera bakarra egin zuten. Osoko bilkurako kideei ez zitzaion bigarren bilera baterako deitu 2011ko maiatzaren 22an udal hauteskundeak izan zirelako eta hauteskundeak direnetan protokoloak itxarotea agintzen duelako. Egoera hori dela eta, gainera, atzerapenak sortzen dira zenbait erakundek Behatokian dituzten ordezkariak izendatzerakoan. Hala, 2011ko ekitaldia ixterakoan, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak izendatzeko zituen artean Bizkaiko udalerri eta mankomunitateen hiru ordezkariak.

URT.	OTS.	MAR.	APIR.	MAI.	EKAI.	UZT.	ABU.	IRAI.	URRI.	AZA.	ABE.
		31									

■ 2011ko martxoaren 31ko bilera

Behatokiaren 2010eko jarduera-memoria aurkeztu eta onartu da.

Seihileko datuak biltzeko prozesua nola joan den azaldu da eta “Udalerrietako informazio-orria” deritzon txostenaren adibide bat aurkeztu da. 2010ean abiatutako esperientzia pilotu hori indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko beren baliabideak dituzten udalerri eta mankomunitateetan jarri da martxan.

EAEn Genero Indarkeriaren Behatoki bat eratzeak izan dezakeen eraginari buruz Behatokiak martxan duen gogoeta-prozesuari zabalik eustea erabaki da.

BGIBren Komunikazio-plan bat lantzeko eta erakundea beste eremu batzuetara zabaltzeko asmoa atzeratzea erabaki da, EAEn Genero Indarkeriaren Behatoki bat eratzeak Bizkaiko Behatokiaren jardueran zer eragin izan dezakeen jakin arte.

Eranskinak kontsultatzeko:

[2011ko martxoaren 31ko bilera](#)

b. Adierazleen Lan Taldea

Behatokiaren osoko bilkurak 2004ko urriaren 22an egindako bileran, Adierazleen Lan Taldea sortzea onartu zen. Lan-talde hori emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren fenomenoaren oinarri homologagarri eta denboran konparagarri batean neurtzeko beharrezkoak diren adierazleak eratzeko sortu zen.

2011. urtean, honako erakunde eta pertsona hauek izan dira Lan Talde horretako kide:

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila:

Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Saileko burua
(*Lan-taldearen koordinatzailea*)

Ordezkoa: María Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakumea eta Familia Zerbitzuko burua

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila:

Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero-politiken idazkari teknikoa

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapena Saila:

Francisco Aguiriano Miranda jauna, Informazio Egituren Ataleko burua

Ordezkoa: Juan José Duque Murua jauna, Informazio Egituren Ataleko goi teknikaria

↑ Emakunde-Emakumearen Euskal Institutua:

Raquel Raposo Acevedo andrea, Programak eta Prestakuntza Sailaren arduraduna

Ordezkoa: Begoña Zugadi Rodrigo andrea, Programak eta Prestakuntza Saileko teknikaria

↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:

Marimar Rueda Fernández andrea, Estatistika Saileko burua

2011ko maiatzaz geroztik, Sail horrek ordezkari bat gehiago du:

Sorne Etxebarria Arrien andrea, Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Zuzendaritzaren abokatua

↑ Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila:

Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak (EUDEL)

- ↑ Gernika-Lumoko udala (Titularra)
Ixone Badiola Lekue andrea, Gernika-Lumoko Udaleko Berdintasuneko teknikaria
- ↑ Ermuko Udala (Ordezkoa)
Begoña Fernández Alcalde andrea, Ermuko Udaleko Berdintasuneko teknikaria
- ↑ EUDEL (Kolaborazioa)
Mireia Espiau Idoyaga andrea, EUDELeko Berdintasuneko teknikaria

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

- ↑ ARGITAN-Emakumearen Zentro Aholku-emailea
Karmele Ozaita Andrés andrea, lehendakaria
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, diruzaina (2011ko urrira arte)
Aintzane Riancho Blanco andrea, abokatua (2011ko urriaz geroztik)
- ↑ AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua:
Marta Dolado Galíndez andrea, abokatua
Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias andrea, abokatua

Aldi berean, Adierazleen Lan Taldeak hiru bilera egin ditu 2011. urtean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren bulegoetan izan dira, Behatokiak han baitu egoitza.

URT.	OTS.	MAR.	APIR.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRAI.	URRI.	AZA.	ABE.
		25	11		10				5 18		

■ **2011ko martxoaren 25eko bilera**

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek eta mankomunitateek martxan jarritako programen inguruko seihileko datuak (2010eko lehen sei hilabetetakoak) biltzeko lehen prozesua abiarazi zuen Behatokiak 2010ean eta prozesu horren emaitzak nagusiak azaldu dira bileran, prozesuari buruzko AMIA txosten bat aurkeztuta. Orobat, hortik ateratako txosten edo “Udalerrietako informazio-orri” baten adibidea ere aurkeztu da, eta prozesu horretan parte hartu duten erakunde bakoitzari bidalitako balioespen-galdeketa berri eman da; izan ere, ekimen pilotua izanik, asmoa da erakunde horiek eta Behatokiak elkarri informazioa eman diezaioten laguntzea.

Seihileko datu bilketa horretatik sortutako “Udalerrietako informazio-orria” txostenak balioesteko galdetegiak telefono bidez egitea erabaki da.

Berdinsarea eta sare horren lansaioak seihileko datuak biltzeko erabiltzea erabaki da, bai eta prozesu horren gainean fede emango duen informazioa eskuratzeko ere.

Adierazleen Lan Taldearen 2011ko ekitaldirako proposamena aurkeztu da.

■ **2011ko apirilaren 11ko bilera**

Seihileko udal txostenak balioesteko asmoz dagokion erakundeekin telefono bidez eginiko galdeketek zer emaitza eman duten azaldu da.

Adostu da Berdinsareak bermatuko duela Behatokiaren seihileko datuen bilketa eta horretarako prozesuaren hasieran berariazko komunikazio bat bidaliko dela posta elektroniko bidez.

Behatokiak 2004-2008 epearen amaieran zehaztu eta “Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erakundeen jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak” dokumentuan jasotako gomendioen jarraipena eta balantzea egiteko lan-proposamena aurkeztu da, eta prozesu hori arautuko duten alderdi nagusiak onartu dira.

Adierazleen Lan Taldean Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren ordezkari kide batetik bira zabaltzea erabaki da, Sail horretako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren ordezkari bat talde horretara biltzeko.

Azpiparratu da komenigarria dela Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak Adierazleen Lan Taldean parte hartzen jarraitzea; izan ere, sail horretako ordezkariak adierazi du horren gainean gogoeta egiten ari direla sailean. Horrenbestez, dagokion zuzendaritzari taldearen iritzia helarazteko eskatu zaio ordezkari horri.

■ **2011ko ekainaren 10eko bilera**

Bileran izan da Bilboko Udaleko ordezkaria, Irati Fernández Pujana andrea, Behatokiak erakunde informatzaileei Lan-taldearen 2011ko bileretako batean parte hartzeko egin zien gonbidapena onartu ondoren.

“Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak, 2011” txostena aurkeztu eta onartu da. Datozen urteei begira txosten horretan egiteko zenbait hobekuntza adostu dira.

Erabaki da erredakzio-talde bat eratzea, Emakumea eta Familia Zerbitzua eta Behatokiaren Idazkaritza Teknikoa partaide direla, hasiera batean BGIBk emandako gomendioen inguruko zenbait eduki lantzeko; hain zuzen, Behatokiak jardunean egin zituen lehen lau urteen amaieran (2004-2008) formulatutako gomendio horien jarraipen-eta balantze-faseei buruzko edukiak lantzeko.

■ 2011ko urriaren 5eko bilera

Bileran izan da berriro ere Bilboko Udaleko ordezkaria, Irati Fernández Pujana andrea, gonbidatu moduan.

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2010” txostenaren zirriborroa aurkeztu eta onartu da, eta alegazioentzako epe bat zabaldu da, Adierazleen Lan Taldean partaide diren erakundeetako batek dokumentua berrikusteko aukera izan dezan.

2011ko lehen sei hilabetei buruzko datuak biltzeko prozesua martxan dela jakinarazi da eta prozesu hori ordura arte zertan den azaldu da. Halaber, erantzunen indizea hobetze aldera sendotzeko neurriak hartzea adostu da.

Erabaki da Lan-taldea osatzen duten kideei guztientzako gomendio orokorren zerrenda bidaltzea, hurrena gai horri buruz berariaz egingo den lansaio bateratuan aztertzeko. Idazkaritza Teknikoak hartu du bidalketa hori egiteko ardura.

■ 2011ko urriaren 18ko bilera

Gomendioen jarraipenari eta balantzeari buruzko lansaio monografikoa egin da, Lantaldeak urriaren 5eko aurreko bileran hartutako erabakia betez.

Prozesuaren hasieran, jarraipena errazteko, sailkatu egin ziren gomendioak, eta guztientzako gomendio orokor modura zehaztu ziren batzuk. Hain zuzen, gomendio horien balorazioa egin da bileran, baina erakunde batzuk bertaratu ez direnez, Lantaldeak aztertutako gomendioen gaineko balorazioa eskatzea erabaki da bertaratu ez direnei, azken balorazioan haien ikuspegia ere jasotzeko.

Eranskinak kontsultatzeko:

[2011ko martxoaren 25eko bilera](#)

[2011ko apirilaren 11ko bilera](#)

[2011ko ekainaren 10eko bilera](#)

[2011ko urriaren 5eko bilera](#)

[2011ko urriaren 18ko bilera](#)

c. Kanpo Harremanak

Behatokiaren jardueraren adar horrek erantzun behar die erakunde publiko eta pribatueta eskatzaileek nahiz partikularrek emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko datuei buruz erakundera bideratutako informazio-eskabideei. Telefono bidez edo posta elektronikoz bidez emango die erantzun hori; posta elektronikoz bada, korporazioaren ovgb.bgib@bizkaia.net helbidearen bitartez.

2011. urtean, herri administrazioa hainbat arlo, irabazi asmorik gabeko erakunde ugari, hainbat organismo pribatu, Goi-mailako Hezkuntzako ikasleek eta bestek eginiko eskabideei erantzun die BGIBk. Informazio-eskaerak askotarikoak izan dira: arazo hori jasaten duten biktimei laguntzeko zerbitzuen eskuragarritasunari eta ezaugarriei buruzkoak, estatistika-datuei buruzkoak, edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden txosten, azterketa, ikerlan eta argitalpenen inguruko informazio eta dokumentazioari buruzkoak.

Era berean, alta eman zaie *OVGB/BGIB Buletina* irakurtzeko eta agerkarira harpidetzeko interesa agertu duten herritarren eskabide askori.

d. Webgunea

Behatokiak sarrera libreko webgune bat kudeatzen du 2004. urteaz geroztik, eta bertara Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren webguneko honako esteka honetatik iristen da:

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Honako helburu orokor hauek betetzeko sortu zen webgunea: organoaren jarduera hedatzeko; emakumeen aurkako indarkeriaren ikerketa-lana eta erradikazioari buruzko informazioa trukatzeko; lan-tresnak diseinatzeko, eguneratzeko eta hedatzeko, eta azkenik, Behatokiaren eta erakunde hizketakideen artean hartu-eman bideratzeko eta ideien eta dokumentuen trukea errazteko.

2011. urtean indar handiagoa egin da webgunea sustatzeko, Interneteko ataria bozgorailu ezin hobe baina informazioa komunikatzeko eta hedatzeko, eta horri begira, ahalegina egin da webgune hori informazio aldetik etengabe eguneratzeko eta itxura aldetik egin beharreko aldaketak egiteko, era horretara atarian eskainitako edukietara errazago iristeko eta medio horrek eskatzen dituen berrikuntzak integratzeko.

Behatokiaren webgunea 16 sarreratan dago egituratuta (horietatik zortzik testuak jasotzen dituzte):

- **Definizioa:** Behatokiaren aurkezpena; aurrekariak; helburuak eta zereginak.
- **Kideak:** Behatokia osatzen duten pertsonak identifikatzeko zerrenda, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunde ordeztzen duen zehazten duena.
- **Bilerak:** osoko bilkuren egutegia eta haietan onartutako dokumentuak.
- **Dokumentuak:** deskarga daitezkeen 81 dokumentu jasotzen dira bertan: protokoloak, legeria, nazioarteko baliabideak, azterketak eta gidak; Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak argitaratutako inkesta zabalak (*“Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak, 2006”* eta *“Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak, 2009 eta 2005-*

2009 arteko alderaketa Bizkaiko Lurralde Historikoan”), baita Behatokiak berak sortutako dokumentazioa ere:

- BGIBren Lan Plana (2009-2012)
 - BGIBren Lan Plana (2004-2008)
 - BGIBren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia
 - Jarduera-memoria (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2010)
 - “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak” dokumentua (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2010)
 - “Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatua eta etxean indarkeria jasaten duten emakumeei babesa ematea. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan” txostena (urtea: 2011)
 - “Manual de prácticas, iniciativas y experiencias contra la violencia de género, 2006” (Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2006) argitalpena.
 - “Manual de prácticas, iniciativas y experiencias contra la violencia de género, 2010” (Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010) argitalpena.
 - “Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko zifrak Europar Batasunean, 2006” dokumentua.
 - “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2004-2008ko epealdia” azterketa.
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak, 2009” dokumentua (Argitalpenaren Sintesia/Testu Osoa).
- **Baliabideen mapa:** indarrean den urtean (2011) eguneratutako datu-basea, Bizkaian erakunde eta elkarten esparruetan genero-indarkeriako egoerak artatzen diharduten baliabide eta entitatez osatua. Tresna horrek, era berean, aukera ematen du berdintasuneko planen berri, indarkeriaren aurkako programen berri eta ekintza koordinatuko protokoloen berri jakiteko. Izan ere, plan, programa eta protokolo horiek sortu dituzten erakundeek –udalerri eta mankomunitateek– BGIBren esku jartzen dituzte baliabideak Behatokiak zabal ditzan. Mapak *baliabideen bilatzailea* izeneko aplikazioa dauka. Horri esker, zerbitzuen

zerrendak lor daitezke (gizarte-arloko baliabideak, justizia-arloko baliabideak, elkarteak eta beste batzuk, indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak, polizia-arloko baliabideak, osasun-arloko baliabideak eta berdintasunerako tresnak) honako hiru bilaketa-aukera hauen arabera:

- Udalerrri guztiei dagozkien baliabideak guztira
- Aukeratutako udalerrriari dagozkion baliabideak guztira
- Udalerrri guztien barruan, aukeratutako arloen baliabideak guztira

■ **Adierazleak:** bi atal biltzen ditu, Lan Taldea eta Zifrak.

- **Lan-taldea** deritzon atalean, Adierazleen Lan Taldeko kideen zerrenda dago, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakundetatik datorren adierazita; gainera, elkarraldien egutegia eta horietan sortutako dokumentuak ere badakartza.
- **Zifrak** deritzon atalak, bestalde, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentuaren 2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko, 2008ko, 2009ko eta 2010eko edizioak eskaintzen dizkigu.

■ **Baliabideen atlasa:** 2011. urtean bertan eguneratutako bilduma kartografiko horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen dizkieten arreta juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideek zer eremu hartzen duten azaltzen da; horietaz gain, koordinazioko egituren berri eta indarrean diren berdintasun-politiken berri ere ematen da (planak, arloak, sareak eta eragileak).

■ **Dokumentu-kudeatzailea:** plan, programa, lege eta protokoloen bilduma da. Hor biltzen dira udaletako berdintasun-planak, udal-programak, udal-protokoloak eta aplikatu beharrekoa den legedia Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta estatuan.

■ **Loturak:** gune honetan, Behatokian parte hartzen duten erakundeen webguneen estekak ditugu, eta baita beste erakunde batzuenak, antzeko behatokiak, eta erakunde, programa eta proiektuenak ere.

■ **Parte hartu OVBG-BGIBren ebaluazioan:** Behatokiaren eta haren webgunearen funtzionamenduari buruzko online inkesta, gunea kontsultatzen dutenek betetzeko.

- **Buletina:** hiru hilean behingo argitalpen elektronikoa; bertara webguneko orrialdeetatik iristen da, azken argitalpenera nahiz argitaratutako zenbaki guztiak biltzen dituen historialera.
- **Hizkuntza:** euskarazko edo gaztelaniazko bertsioa aukera dezakegu webgunean nabigatzen ari garela.
- **Harremana:** erakundearekin harremanetan jartzeko datuak erregistratzen ditu, hala nola kokagunea, helbide elektronikoa, telefonoa eta faxa.
- **E-posta:** Behatokiaren posta elektronikoaren helbidea, ovgb.bgib@bizkaia.net
- **Irisgarritasuna.**
- **Web-mapa.**

Behatokiaren lehentasuna da aniztasun funtzionala duten pertsonentzat edota, informazioa eskuratzerakoan oztopo teknologikoak dituztenen pertsonentzat tresna praktikoa eta erabilgarria izatea, online dagoen informazioa lortzerakoan eta kudeatzerakoan berdintasuna sustatuko eta bermatuko duena, gaur egungo baldintza teknologikoak kontuan hartuta. Irisgarritasun hori bermatzeko, orrialde guztiek WAI ekimenak (Web Accessibility Initiative) emandako gomendioak betetzen dituztela egiaztatu dugu.

e. Udal Harremanetarako Sarea (UHS)

Behatokia lanean hasi zenetik, Behatokiaren jardueraren oinarrietako bat izan dira udalerriekiko eta mankomunitateekiko harremanak; izan ere, elkarlan hori funtsezkoa da Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoaren zertan den jakiteko. Alderaketan eta informazioaren zorroztasunean oinarritzen da eginkizun hori.

Seihileko eta urteko datuak biltzeko prozesuetan, informatzaile eta Behatokiaren arteko informazio-truke horretan, BFAko Emakumea eta Familia Zerbitzuko profesionalak eta Bizkaiko 112 udalerrietako eta 9 mankomunitateetako Berdintasuneko eta Gizarte Zerbitzuetako arloetan diharduten profesionalak esku hartzen dute.

Bi prozesuek, hortaz, helburu bera dute: herri bakoitzean erreferentziazko kontaktuak eta loturak identifikatzea, ezartzea, mantentzea eta eguneratzea, kontaktu horiek aldian-aldian informazio eguneratua eman diezaioten Behatokiari eskueran dituzten baliabideen eta erregistratutako asistentzien inguruan, ondoren horiek aztertzeke.

Lau urte igaro dira 2007an, EUDEL-Euskal Udalen Elkartek (BGIBko kide da, eta Adierazleen Lan Taldeko partaidea) jakinarazpen bat sinatu zuela Behatokiarekin batera, informazioa biltzeko prozesuari hasiera emateko, Behatokiari laguntza ematera bultzatzeko eta erakunde informatzaile bakoitzari figura solaskide bat izenda zezala eskatzeko.

Eskatutako datuak bildu ondoren, udalerriek eta mankomunitateek Behatokiari helarazten dizkiete, eta, hala, sistema horrek, fasez fase, lagundu egiten du Lurraldeko baliabideen mapa aldian-aldian eguneratzen. Hau da, informazio horri esker gaurkotu egiten dira batetik, bikotekideen edo bikotekide ohien aldetik indarkeriazko egoerak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko programak, eta, bestetik, tokiko erakundeek artatutako emakume biktimen inguruko estatistikak. Hurrengo fase batean, informazio horren analisitik sortutako emaitzak Behatokiaren dokumentuetan eta tresnetan jasotzen dira, eta BGIBren webgunean argitaratzen, horiek kontsultatzeko interesa izan dezakeen pertsona ororen eskura.

Aurreko urtean abiatutako ekimenari jarraituz, biktimei laguntzeko beren baliabideak dituzten tokiko erakundeek emandako sei hileko estatistikak bildu dira 2011n ere, eta informazio hori tratatu ondoren, dokumentu bat –Udalerrietako informazio-orria– igorri zaie tokiko

administrazio horiei. Honako eduki hauek bildu dira txosten horretan: batetik, hasierako galdetegietatik ateratako datuak, eta, bestetik, udalerri horietako biztanleek epe horretan eginiko laguntza-eskabideei buruz beste zerbitzu publiko batzuek erregistratutako datuak.

Gogoratu behar da zein den seihileko informazioa biltzeko prozesu horren helburua: esku hartzen duten erakundeetan datuak biltzeko mekanismoen sistematizazioa sustatzea, hain zuzen. Horrenbestez, Behatokiaren jarduna optimizatzeko neurritzat hartu behar da seihileko datuen bilketa hori, egoera zein den zehaztasun handiagoz jakiten laguntzen duelako, erakunde informatzaileen sarea akuilatzen duelako eta datuak jasotzearen garrantziari buruzko sentsibilizazioa sendotzen duelako.

Tokiko erakundeetan eta BGIBren arteko komunikazioa, normalean, posta elektroniko bidez (e-posta: ovgb.bgib@bizkaia.net), posta arruntaren bidez edota telefonoaren bitartez bideratzen da. Aldiz, dokumentuak, lan-tresnak eta, oro har, informazioa hedatzeko, Behatokiaren webgunea erabiltzen da eta, zehazki, OVGB/BGIB Buletina.

Aldi berean, udalek eta mankomunitateek hainbat kontsulta egiten dizkiote Behatokiari eta, orobat, informazioa helarazten diote lurralde eta erkidego mailan erabakitako baliabide, plan, programa, jarduera eta proiektu publikoei buruz.

Udal Harremanetarako Sarea bultzatzeko eta sendotzeko neurri gisa, 2010ean atal berri bat zabaldu zen OVGB/BGIB Buletinean, "Sarean", erakunde informatzaileak argitalpenean parte hartzera bultzatzeko. 2011. urtean, Ondarroa, Basauri, Galdakao eta Leioako udalek lagundu dute sekzio horretan (OVGB/BGIB buletina, 20 zk., 21 zk., 22 zk. eta 23 zk., hurrenez hurren).

Era berean, informatzaileen sarea sendotzeko neurri modura, erakunde horiei Adierazleen Lan Taldearen bileretan parte hartzeko aukera ematea erabaki zen, eta, hala, 2011n, ekainaren 10ean eta urriaren 5ean eginiko saioetan izan da Bilboko Udala.

f. Informazioa kudeatzeko sistema integrala

2011ko seihileko eta urteko datu-bilketa prozesuak abiarazteko eta gauzatzeko, informazioa kudeatzeko sistema integrala erabili du Behatokiak. Sistema hori 2007ko ekitaldian hasi zen aplikatzen, indarkeriaren biktimei emandako arretei buruzko datuak eta Lurraldeko udalerriek eta mankomunitateek horretarako gaituriko baliabideen berezitasunak biltzeko, erregistratzeko eta ustiatzeko lana arintze aldera eta optimizatze aldera.

Sistemaren funtsa datu-base bat da, tokiko erakundeek emandako informazioa biltzen duen datu-base bat. Erakundeek informazioa helarazteko, galdesorta digital pertsonalizatu bat betetzen dute, aurreko urteetako datuak ere gordetzen dituen eta, horrenbestez, informazio berria edo zerbitzariak gordeta duen informazioarekin alderatuta desberdina dena baino ez dute sartu behar. *BackOffice* tresnaren bidez, berriz, fitxetan jasotako datuen zerrendak eta estatistikak atera daitezke.

2010ean, Behatokia seihileko datuak biltzen hasi zenean, informazioa kudeatzeko sistema zabaldu egin zen eta beste galdesorta bat gehitu zen, zehazki urteko lehen sei hilabeteetan emakume biktimei emandako laguntzen kopurua jakiteko. Berritasun horren eraginez, datu-basea egokitu egin behar izan da, informazio-kategoria hori jasotzeko eta kudeatzeko.

Hala, Sistemako datuak biltzeko eta erregistratzeko bi galdesorta baliatzen dira gaur egun, bat urteko datuak biltzeko eta bestea seihileko datuak jasotzeko.

Urteko datuak biltzeko formularioak gaika antolatutako sei atal nagusi ditu. Erakundeek zer baliabide eskaintzen dituzten eta beren jardunean zenbat arreta eman dituzten zehazten da atal horietako bakoitzean:

- Tokiko Erakundea
- Gizarte-baliabideak eta berdintasunerakoak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Emakumearen edota Berdintasunaren Arloa, Berdintasun Plana, Berdintasun Agentea, Berdintasun Kontseilua, Ekintza koordinaturako tokiko protokoloa, Berdintasuna eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plana
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikoko baliabideak
- Indarkeriaren biktimei emandako Babesa emateko baliabideak
- Beste baliabide batzuk: Familien Elkargunea, 2011n zabaldua.

2011n zenbait aldaketa egin dira formulario horretan. Bi hauek dira aipagarrienak: batetik, *ezgaitasunari* buruzko galdera bat gehitu da harrera-baliabideak, aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa baliatzen dituzten emakume erabiltzaileen profila zehazteko egiten diren galderen artean; eta bestetik, beste galdera-sorta oso bat gehitu da udalek kudeatzen duten *Familien Elkargunea* zerbitzuari buruz, zehaztasun handiagoz jakiteko amaren aldeko babes-agindua izan eta zerbitzu horiek baliatu dituzten kasuen berri.

Era berean, seihileko datuak biltzeko formularioan ere ezarri dira hobekuntza horiek. Bizkaiko udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideek indarkeria-arazoak izan dituzten emakumeei urtearen lehen erdian emandako laguntzen gaineko datuak jasotzen dituzte seihileko bilketa horretan. Eskueran dauden baliabide moten arabera egituratzen da seihileko datuen bilketa hori:

- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikoko baliabideak
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei Babesa emateko baliabideak
- Beste baliabide batzuk: Familien Elkargunea, 2011n zabaldua.

Bi kasuetan formularioek lotura zuzena eskaintzen dute “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak” dokumentura¹. Kontzeptuak argitzea eta datuak biltzeko xedea azaltzea dira dokumentu horren helburuak.

Formularioak betetzerakoan zalantzarik sortuz gero eta kontsultaren bat egin behar izanez gero, tokiko erakundeek telefono eta posta elektronikoko bidez laguntzeko zerbitzuak dituzte. Behatokiaren Idazkaritza Teknikoak kudeatzen ditu zerbitzu horiek.

Sistema horren funtzionamenduak optimizatu egiten du informazioaren kudeaketa, prozesuaren jarraipena, datuen ustiaketa eta informazioa hornitzeaz arduratzen diren erakundeekiko hartu-emanak. Euskarri homogeen batean bildutako datu egiaztagarriak jasotzen eta kultura hori sustatzen laguntzen dute jardun horiek.

Etengabeko hobekuntza xedetzat harturik eusten dio Behatokiak aplikazio horri eta, hala, ahalegina egiten du, erakunde informatzaileek eginiko eskakizunak eta barne-gogoeta oinarri harturik, tresna hori hobetzeko elementuak identifikatzen.

¹ Sexu-erasoak eta etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen barruan egin zen dokumentu hori.

g. Baliabideen mapa

Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko baliabideen mapa datu-base bat da, eta Behatokiaren webgunean dago kokatuta. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskariei erantzuteko Bizkaian dauden baliabideei buruzko informazioa jasotzen da bertan.

2005ean lehen aldiz argitaratu zenetik hona, Behatokiaren ezinbesteko zeregina da tresna hori mantentzea eta eguneratzea, eta, hala lan hori egin du aldiro-aldiro BGIBk, Lurraldean diharduten administrazioek zerbitzuak berregituratu, itxi edo berriak zabaldu dituztela jakin ahala.

Mapak zortzi atal ditu eta udalerri bakoitzari buruzko datu zehatzak azaltzen dira horietan, udalerri udalerri antolatuta: indarkeriaren aurkako zerbitzu espezifikoak, gizarte-, polizia-, justizia- eta osasun-zerbitzuak, elkarteak eta berdintasun-tresnak (berdintasun-planak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, eta indarkeriaren aurkako ekintza koordinaturako protokoloak).

Mapak, horrela, dauden baliabideen eta horien deskribapenaren gaineko informazioa ematen du, eta horrez gain, gaiarekin lotutako dokumentazioa eskuratzeko aukera ere bai. Beraz, erabiltzaileek eskatutako informazioa ematen du mapak, honako formatu hauetan:

- A. **Udaletako fitxak:** mapa grafikoan edo zerrendan udalerria hautatu ondoren, aukeratutako herrian dauden baliabideei buruzko informazio-fitxa bat agertzen da.
- B. **Baliabideen zerrenda:** mapak baliabideen bilatzaile bat dauka, eta horrek aukera ematen du zerrendak ateratzeko, honako hiru bilaketa-aukera hauen bidez:
 - mapan jasotako baliabide guztiak, udalerri guztiei buruzkoak;
 - udalerri bakar bateko baliabideen sorta bat;
 - udalerri guztietako baliabideen sorta bat.

Halaber, kontsultak egin ondoren ateratako datuen zerrenda Excel formatuan eskuratzeko aukera ematen duen aplikazio bat ere badu adierazitako tresnak.

Honako kolektibo hauetako hartzaileak interesatzen dira Mapan jasotako informazioa hedatzeaz:

- Arreta ematen diharduten profesionalak eta erakundeak: herrian edota mankomunitatean eskura dauden baliabideei buruzko informazio osoa ematen da, betiere baliabide horiek zerbitzuak hobetzeko balio badute; genero-indarkeriaren arloan indarrean dagoen araudiari buruzko dokumentazioa (planak, programak edo udalerriek eta mankomunitateek ezarritako protokoloak) ere kontsulta daiteke.
- Eraginpeko pertsonak: arreta emateko zer baliabide dauden gaituta xehatzen da, horiekin harremanetan jartzeko datuak emateaz gain.
- Politika publikoen arduradunak: datu eta informazio fidagarria eskuratzeko sarbidea ematen da, egungo egoera baloratzeko eta jardun-neurri berriak hartzeko.
- Herritarrak/erkidegoa: indarkeria-egoeretako arretan esku hartzen duten erakundeak eta baliabideak identifikatzen dira.

Eranskinak kontsultatzeko:

[Genero-indarkeriaren arloko baliabideen mapa, 2011](#)

h. Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlasa

Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlasa, bilduma kartografiko bat da funtsean. Gizarte-arloan genero-indarkeriako egoerei laguntza emateko dauden zerbitzuen sareari nahiz erakunde publikoek hartutako berdintasun-tresnei buruzko informazio grafikoa adierazten da mapen bilduma horretan: planak, programak, protokoloak eta abar.

Tresna hori, 2011ko datuekin eguneratuta, Behatokiaren webgunean dago eskueran eta hor bildutako informazioa bost ataletan antolatuta aurkezten da:

Planak

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, 1., 2. edo 3. edizioa den kontuan hartuta
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, onartutako urtearen arabera
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, langile tekniko espezializatuak ote dituzten kontuan hartuta

Koordinazioa

- Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarea, BERDINSAREA
- Etxeko Tratu Txarren Biktima diren Emakumeentzako arreta hobetzeko tokiko eta eskualdeetako protokoloak

Harrera

- Bizkaiko Lurralde Historikoan Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako harrera-baliabideak, tokien kopurua kontuan hartuta
- Bizkaiko Lurralde Historikoan Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako harrera-baliabideak, zer urtetan sortu ziren kontuan hartuta

Arreta psikologikoa

- Arreta Psikologikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbat arreta-ordu ematen diren kontuan hartuta

- Arreta Psikologikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta

Aholkularitza juridikoa

- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbat arreta-ordu eman diren kontuan hartuta
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta

Eranskinak kontsultatzeko:

[Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Baliabideen Atlasa Bizkaiko Lurralde Historikoan 2011](#)

i. Zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak” deritzon txostenak (Behatokiaren webgunetik sar daiteke dokumentu horretara) adierazitako hiru jardun-esparruetako erakunde publikoek emandako informazioa biltzen du. Horri dagokionez, 124 informazio-iturri daude guztira; zehazki, honako hauek: 112 udalerri, 9 mankomunitate, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Saila, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta Azterketa Arloa), eta Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua (ICASV).

2011ko edizio honetarako, iturri dokumentaletara jo da bestelako datu batzuk eskuratzeko: prozesu judizialei buruzkoak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia) eta Auzitegiko medikuen arretei buruzkoak (Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea), hain zuzen.

Dokumentuaren edukia bi bertsiotan aurkeztu da:

■ Dokumentu osoa, honako elementu hauek dituen:

- Azterketa-dokumentua(k)
- Terminoen glosategia
- Datuen iturriak
- Datu-taulen eranskina
- Dokumentu-eranskina (emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa, erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak adostua)

■ Azterketa-dokumentuak eta datu-taulak jasotzen dituzten liburuak (pdf eta xls), gaika antolatuta:

- Azterketa deskribatzailea jasotzen duten 3 dokumentu (Gizarte-, Polizia- eta Justizia-arloak)
- Datu-taulak (xls) jasotzen dituzten 10 liburu
- Datu-taulak (pdf) jasotzen dituzten 10 liburu

Dokumentuaren egitura gaikako hiru bloke handitan antolatu da:

■ GIZARTE BABESAREN ARLOA

Bloke horretako azterketak eta datu-taulek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: Harrera (larrialdiko zerbitzua, epe ertaineko edo luzeko arreta-zentroak eta -pisuak), Aholkularitza Juridikoa, Laguntza Psikologikoa, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatuta, Familien Elkarguneak, Etxebizitza, Telefono bidezko Arreta eta Laguntza Ekonomikoak.

Informazio-iturriak: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren Emakumea eta Familia Zerbitzua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalerri eta Mankomunitateak –Harrerarako, Aholkularitza Juridikorako edota Arreta Psikologikorako eta Familien Elkargunerako zerbitzuak dituztenak–, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

■ ESPARRU POLIZIALA

Bloke horretako azterketak eta datu-taulek honako alderdi honi buruzko informazioa jasotzen dute: Bizkaiko Lurralde Historikoan etxeko indarkeriak biktima bihurtutako zenbat emakume erregistratu dituen Ertzaintzak. Atal horrek, halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriaren panorama erakusten duten adierazle nagusien hainbat mapa ere jasotzen ditu.

Informazio-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Segurtasun Sailburuordetza.

■ ESPARRU JUDIZIALA

Bloke horretako azterketak eta datu-taulek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: etxeko indarkeriagatik hasitako prozesu judizialak, biktimei emandako arretari buruzkoa, abokatu-laguntza eta auzitegiko medikuaren arretaren gainekoa.

Informazio-iturriak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia; Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bidez; Etxeko Indarkeriaren edota Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua eta Ofiziozko Txanda (Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren bidez); eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea.

Eranskinak kontsultatzeko:

"Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2010)".

j. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa: Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Behatokiak urtero argitaratzen du “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Foru Baliabideak, udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Harrera, Aholkularitza Juridikoa, Laguntza Psikologikoa, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatua eta Familien Elkarguneak” dokumentua, eta bertan, Bizkaian arlo horretan dauden zerbitzuen eskaintzari buruzko informazio eguneratua jasotzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lurraldeko tokiko erakundeek emandako datuak aintzat hartuta.

Katalogoa bost ataletan egituraturik dago:

- Harrera Baliabideak
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikoko baliabideak
- Familietan esku-hartze espezializaturako baliabideak
- Familia Elkarguneak

Atal bakoitzaren hasieran gaikako mapa bat dago. Arloari dagozkion baliabideek lurraldean zer estaldura duten azaltzen du mapa horrek.

Txostenaren atal bakoitza, halaber, bi azpiataletan dago antolatuta, baliabidearen titularra zein den kontuan hartuta: Bizkaiko Foru Aldundia, batetik, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak, bestetik.

2011ko edizioan, Aholkularitza Juridikoari buruzko atalak, Arreta Psikologikoari buruzkoak, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatuari buruzkoak eta Familia Elkarguneei buruzkoak honako informazio hau biltzen dute:

- Baliabidearen titularra zer erakunde den (harremanetarako datuak)
- Baliabidearen helburu orokorrak eta garatu beharreko esku hartzeko programa
- Zer kolektibori zuzentzen zaion
- Kudeaketa mota
- Arreta-egunak eta -ordutegia
- Arreta-orduak hileko

- Zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua
- Beste zenbait datu interesgarri (esaterako, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Erabiltzaile-kopurua 2010ean, sexuaren arabera sailkatuta
- Indarkeriaren ondorioz (tratu txarrak eta sexu-erasoak) artatutako emakumeen kopurua 2010ean, kasu berriak eta aurreko kasuak adierazita

Harrera-baliabideei buruzko informazio-fitxak, berriz, beste gai hauek jasotzen ditu:

- Zenbat baliabide dauden
 - Pisu kopurua
 - Plaza kopurua
- Pisu mota
 - Aldi baterako harrera
 - Larrialdiko harrera
- Zerbitzuaren kudeaketa mota
- Babesteko / laguntzeko programa
- Pisuari atxikitako langileak
- Beste zenbait datu interesgarri (esaterako, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- 2010ean hartutako pertsonen kopurua, informazioa hauen arabera bereizita:
 - Emakumeak
 - Emakume horien mendeko adingabeak, sexuaren arabera banatuta
 - Emakume horien mendeko pertsona helduak

Txostenak beste dokumentu hau jasotzen du eranskin modura: “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”, Etxeko tratu txarrak eta Sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobia emateko erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak berretsitako agiria.

Eranskinak kontsultatzeko:

[“Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Foru Baliabideak, udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Harrera, Aholkularitza Juridikoa, Laguntza Psikologikoa, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatua eta Familien Elkarguneak \(2011\)”](#)

k. Udalerrietako informazio-orria

2010. urtearen amaieran, Behatokiak esperientzia pilotu bat abiarazi zuen: indarkeria-arazoak dituzten emakumeei laguntzeko beren baliabideak dituzten udalerrietako eta mankomunitateetako datuak biltzeari ekin zion baina sei hilean behin. Ekimenaren helburu behinena da tokiko entitateetan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu-bilketa sistematizatzeko mekanismoak sustatzea, eta horretarako, Behatokiak txosten pertsonalizatuak lantzen ditu parte hartzen duten erakundeentzat, eskuratutako informazioa oinarritzat harturik, txosten horien bidez herri mailan genero-indarkeriaren fenomenoari buruzko ezagutza, gogoeta edota azterketa sustatzeko.


Horrenbestez, 2010ean, behin Udalerrietako informazio-orria diseinatuta, seihileko txosten horiek lantzen eta hitzartutako erakundeei bidaltzen hasi zen BGIB. Prozesu horri jarraipena eman zaio 2011ko lehen hilabeteetan, eta jasotako txostenari buruz erakunde horiek zer iritzi duten jakiteko eta erakundearen barnean zer ibilbide eta erabilera eman zaion zehazteko galdetegia bidali zaie. Galdetegi horretan, besteak beste, honako alderdi hauen gainean eskatu zaie iritzia: informazioaren irakurgarritasuna, informazio horren gaineko aurreko ezaguerak, pertsona informatzailearen lanean duen erabilera praktikoa, informazioaren erabilgarritasuna oro har, datuak aurkezteko moduaren egokitasuna eta berriro antzeko txosten bat jasotzeko interesa. Azken horri buruz erakunde gehienek baiezkoa eman dute eta, beraz, egoki jo da produktu berriari jarraipena ematea.

Memoria honen aurreko ataletan ere zehaztu dugunez, 2011ko irailetik aurrera seihileko beste datu-bilketa prozesu bat hasi da, bigarren urtez jarraian. Prozesu horretan, halaber, parte hartzen duten erakundeentzat banakako txostenak lantzea aurreikusi da, aurreko urtean abiatutako ildoan, udalei eta mankomunitateei beren hurbileko ingurunean emakumeen aurkako indarkeriari buruz gogoeta egiteko tresna bat emate aldera.

2011n, *Udalerrietako informazio-orria* dokumentuak lantzea lan-esparru funtsezkoa izan da Behatokiaren egitekoan. Banakako 29 txosten egin dira guztira, urteko lehen seihilekoari buruzko datuekin. Bizkaiko Lurralde Historikoan beren baliabideak dituzten erakundeei (22 udalerri eta 7 mankomunitate) haien inguruneko adierazle esanguratsuenen laburpen bat ematen zaie txosten horretan. Behatokiak udalerri edo mankomunitate horretan zerbitzuen arloan jasotako datu-multzo horretatik ateratakoak dira adierazle horiek.

Aurreko urtearekin alderatuta, 2011n erakunde gehiagok hartu du parte datuak biltzeko prozesuan, eta horrek ekarri du banakako txosten gehiago lantzea (BLHan beren baliabideak dituzten erakundeak adina txosten egin dira, hain zuzen).

Zehazki, 28 erakundek (21 udalerri eta 7 mankomunitatek) erantzun dute, 2010ean baino hamar gehiagok. Hortaz, parte-hartze aldetik %55,6ko hazkundera izan da. 2011n erakunde bakarra izan da daturik eman ez duena. Aldiz, 2010ean 11 erakundek ez zuten parte hartu prozesuan.



Ehunekotan, prozesuan izan den parte-hartzea %96,6ra iritsi da 2011n; aurreko urtean, aldiz, %62koa izan zen.

Seihileko datuak biltzerakoan, hasierako planteamenduaren arabera ezinbestekoa zen udalerriek eta mankomunitateek datuak ematea udalerri edo mankomunitate horretako txostenak lantzeko, baina emaitzak ikusirik, 2011n erakunde guztientzako egin dira dokumentuak.

Era berean, seihileko datu horiek jasotzerakoan beste iturri batzuetara ere jo da (Bizkaiko Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera) eta horrek aberastu egin du dokumentuetan emandako informazioa.

2011n egindako txostenetan honako datu hauek bildu dira: urteko lehen seihilekoan indarkeria-arazoak izan eta gizarte esparruko (udaletako nahiz Foru Aldundiko), polizia

esparruko eta justizia esparruko zerbitzuetan laguntza jaso duten udalerriko edo mankomunitateko emakume kopuruari buruzkoak.

Zehazki, dokumentuak bi kapitulutan banaturik daude eta horietan taula, koadro eta grafiko bidez erreferentziazko seihileko eta aurreko urteetako datu-sorta bat adierazten da, datu horien bilakaera erakusteko:

A. Testuinguruari buruzko datuak

B. Udalerriari edo mankomunitateari buruzko datuak:

1. Gizarte-esparrua

1.1. Udalerrien baliabideak

- 1.1.1. Harrera-baliabideak
- 1.1.2. Aholkularitza juridikoa
- 1.1.3. Arreta psikologikoa
- 1.1.4. Familien Elkargunea

1.2. Foru Aldundiaren baliabideak

- 1.2.1. Larrialdiko harrera
- 1.2.2. Egonaldi ertain/luzerako harrera
- 1.2.3. Aholkularitza juridikoa
- 1.2.4. Arreta psikologikoa
- 1.2.5. Familietan esku-hartze espezializaturako baliabideak
- 1.2.6. Familien Elkargunea

2. Esparru poliziala

3. Esparru judiziala

- 3.1. Babes-aginduak.
- 3.2. Salaketak eta uko egiteak.

I. *Online* dokumentu-kudeatzailea

Online dokumentu-kudeatzailea datu-base bibliografikoa da. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko dokumentu interesgarriak jasotzen dira bertan, behar den moduan katalogatuta, eta gaikako lau tipologiatan sailkatuta:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateen berdintasun-planak
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateen emakumeenganako indarkeriaren aurkako programak
- Etxeko Tratu Txarren Biktima diren Emakumeentzako arreta hobetzeko koordinaziorako tokiko protokoloak
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko legedia:
 - Legeak
 - Dekretuak
 - Aginduak

Dokumentuen deskribapena egiterakoan, ISBD (International Standard Bibliographic Description) arauen egokitzapen bat egin da, dokumentu bakoitzaren ezaugarri formalen eta kanpo-ezaugarrien analisia egiteko. Horretarako, dokumentuen deskribapenean sarbide modura zehaztu diren arloei erreparatu zaie arretaz, sarbide horietatik ateratzen baita dokumentuen funtsean dauden erregistroak katalogatzeko eta antolatzeko beharrezkoa den informazio objektiboa.

Informazio-unitateak arlo edo esparru hauetan mailakatzen dira:

- Egilea
- Izenburua
- Dokumentu mota
- Beste erantzukizun-aipamen batzuk
- Edizio-aipamena
- Hizkuntza
- Edizio-lekua
- Argitaletxea
- Edizio-urtea
- Maiztasuna (aldizkako argitalpenak badira)
- Seriea
- Oharrak
- Zenbaki normalizatuak edo sinboloak:

- ISBN
- ISSN (aldizkako argitalpenak badira)
- NIPO
- DL
- Sinboloa
- Laburpena
- Deskribatzaileak

Behin erregistroak online dokumentu-kudeatzailean sartutakoan, aplikazio informatikoak bi bilaketa-modu ditu:

Bilatzaile arrunta

Testu-kaxan hitz bat edo gehiago idatzita, aukera izango dugu prozedura horren bidez bilatu nahi dugun dokumentua edo dokumentuak eskuratzeko.

Bilatzaile aurreratua

Testu-kaxetan termino bat baino gehiago sartuz, bilaketa zehatzagoa izango da eta eskatutako dokumentua lortzeko aukera gehiago izango ditugu.

Sistemak dokumentua aurkitu, eta fitxa katalogafiko modura aurkezten du. Bertan, bilaketari dagokion dokumentu digitala dago atxikita, baldin eta datu-basean fitxategi hori hor badago. Gero, aplikazio egokiak erabiliz bistaratu ahal izango dugu agiri digital hori.

Eranskinak kontsultatzeko:

[Dokumentu-kudeatzailea](#)

m. OVGB/BGIB informazio-buletina

Behatokiaren buletin elektronikoaren beste lau zenbaki argitaratu dira erakundearen webgunean: zehazki, martxokoa, ekainekoa, irailekoa eta abendukoa, 20, 21, 22 eta 23 zenbakiak, hurrenez hurren.

Buletina, Behatokiaren aldizkako komunikazio-argitalpena, 2005ean abiarazi zen, zehazki, abenduaren 21eko osoko bilkuran berretsitako zenbaki pilotua argitaratu eta gero. Emakumeen aurkako indarkeriako egoerei aurre egiteko martxan jarritako mekanismo, egitura eta prozeduren gainean sentsibilizatzeko, haien berri emateko eta haiek sustatzeko tresna da buletina. Bere garaian adostutako helburuei erantzuten saiatzen da agerkari digitala. Hauek dira aipatutako helburuak:

- Behatokiak lurralde-esparruko informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen rola sendotzea.
- Udalerrri eta mankomunitateekiko harremana finkatzea, baita erreferentziazko beste erakunde batzuekikoa ere.
- Hainbat arlotako profesionalekin eta erakundeekin emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak trukatzeko prozesuaren alde egitea: egindako praktikak, ikasitako lezioak, ikuspegi berriak, eta abar.
- Behatokiaren jardunei eta horien emaitzen hedapenari buruzko etengabeko komunikaziorako gune bat irekitzea eta mantentzea.
- Beste erakunde eta organo batzuen jardueren, proiektuen eta programen berri ematea, genero-indarkeriaren arloan egiten diren ekintzak jakitera emateko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak ikusgarri egitea eta haren gainean sentsibilizatzea.

Zenbaki bakoitzeko edukiak irakurtzeko interesa duten pertsonak aukera dute erakundearen webgunean buletina kontsultatzeko. Bada dokumentua jasotzeko bigarren sistema bat ere: harpidetzea; hau da, argitalpena posta elektronikoz jasotzen duten erakunde, elkarte eta partikularren zerrendetan sartzeko eskatzea. Zerrenda horretan daude erakunde, entitate eta elkarteetako ordezkariak eta pertsona partikularrak:

- Bizkaiko toki-erakundeen Gizarte Ongizateko eta Berdintasuneko arloetako pertsonal politiko eta teknikoak.
- Behatokiaren Osoko Bilkurako kideak.
- Behatokiaren Adierazleen Lan Taldeko kideak.
- Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizartekintza Batzordeko kideak (VII. agintalditik aurrerakoak).
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakumeen Elkarteak.
- Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko lan egiten duten elkarteak.
- Behatokiko profesional eta erakunde hizketakideak.
- Genero-indarkeriaren azterketarekin eta ikerketarekin lotutako pertsonak, argitalpena interesatzen zaienak.
- Argitalpena jaso nahi duten pertsonak eta erakundeak.

Martxoko zenbakian, 20.ean, EZETZ! proiektua jorratzen da, Auzolan laguntza psiko-sozialerako moduluak dinamizaturik gizartea sentibilizatzeko eta gogoeta pizteko egitasmoa; horrez gainera, Behatokiak landutako *Prebentzio eta arreata arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua*, 2010 argitalpenaren berri ematen da, baita Emakume Minusbaliatuen Nazioarteko Sareak (INWWD) landutako *Ezgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria* dokumentu politikoaren berri ere; eta Rosa Baltarrek, Ondarroako Udaleko berdintasuneko teknikariak, bere iritzia plazaratu du buletinaren “Sarean” atalean.

Buletinaren 21. zenbakian, Nahiko programaren berri ematen da, Emakundek bultzaturik berdintasuna, errespetua eta indarkeria eza lantzeko hezkidetza-programaren berri; sei hileko datu-bilketa prozesutik sortu eta Behatokiak landutako udalerrietako txostenen berri ematen da; Save the Children erakundearen “Genero-indarkerian ez dago biktima bat soilik” txostena zabaltzen da; eta, Anabel Sanzek, Basauriko Udaleko berdintasuneko teknikariak, bere iritzia helarazten du.

Iraileko OVGB/BGIB butelinean genero-indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren I. Jarduera Planaren edukia laburtzen da; bi dokumentu mardulen laburpena ere egiten da: Behatokiak urtero lantzen duen “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak, 2010” txostenarena, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Genero eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Behatokiak lantzen duen “Bikotearen edo bikote ohiaren genero-indarkeriaz eta etxeko indarkeriaz 2010ean hildakoei buruzko txostena” dokumentuarena; agerkariaren amaieran, Laura Pinto Galdakaoko Udaleko berdintasuneko teknikariak bere ikuspegia mamitzen du iritzi-artikulu batean.

Azkenik, abenduko zenbakian, Beldur Barik! 2011 kanpainaren balantzea egiten da; Maria Pilar Ardanza Uribarren, Gizartekintzako foru diputatua elkarrizketatzen da; “Tresnak” atalean Justizia Ministerioak argitara emandako “Genero-indarkeriaren arriskua presaz ebaluatzeko protokolo mediko-forentsea” aztertzen da; eta “Sarean” atalean, azkenik, Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Arloko gizarte-langile Maria Jesus Ortiz Ochoa de Aizpuruk bere ikuspuntua azaltzen die irakurleei.

Eranskinak kontsultatzeko:

[BGIB Buletina, 20 zk.](#)

[BGIB Buletina, 21. zk.](#)

[BGIB Buletina, 22. zk.](#)

[BGIB Buletina, 23. zk.](#)

n. Gomendioen jarraipena

Badira bi urte Behatokiak “Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erakundeen jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak” dokumentua argitaratu zuela eta, horrenbestez, Behatokiaren beraren 2009-2012 eperako Lan Planean oinarriturik, hauxe da une egokia Adierazleen Lan Taldeak dokumentu horretan jasotako proposamenen jarraipena eta balantzea egin dezan. Zehazki, I. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa (lehen mailako prebentzioa) eta II. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta (hobekuntzak laguntzako gizarte-zerbitzuetan, indarkeriari buruzko datuak eskuratzeko lanean, profesionalen prestakuntzan eta erakunde arteko koordinazioan) ataletan jasotako proposamenen jarraipena egin beharko luke Adierazleen Lan Taldeak.

Hori dela eta, 2011. urtean zenbait neurri hartu dira helburu horri begira. Esaterako, jarraipena egiteko erabiliko den metodologia adostu da eta dokumentuan zehaztutako gomendioekin loturik egin diren jardueri buruzko informazioa biltzeko eginkizunak zehaztu eta abiarazi dira, besteak beste honako hauek: proposamenen aplikazioari buruzko informazioa biltzeko tresnak landu dira; Behatokiaren Idazkaritza Teknikoak eta Lantaldearen barnean gomendioen garapenean bereziki parte hartu duten erakunde kideek hainbat bilera egin dituzte; eta ekitaldia amaitu eta 2011ko txostenaren zirriborroa idatzi aurretik, Adierazleen Lan Taldeak lansaio monografikoa egin du berariaz jarraipenaren gaia aztertzeko.

Eranskinak kontsultatzeko:

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeen jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak Bizkaiko lurralde historikoan:

- [Sintesia](#)
- [Testu osoa](#)

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
2011KO JARDUERA-MEMORIA